



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

LESAKA

2022. urterako aurrekontua. Behin betiko onespena

2022ko 5. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 10ean, eta Udaleko iragarki-taulan jarritako ediktuen bitartez, Lesakako Udalaren 2022. urterako aurrekontu orokor bakarraren eta hura betearazteko oinarrien hasierako onespena argitaratu zen, eta baita Andra Mari Zaharren Egoitza erakunde autonomoarena ere.

Zegokion jendaurreko aldi inolako alegaziorik aurkeztu ez denez, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 202.1 artikuluan xedatukoaren arabera, aurrekontuak behin betiko onartutzat jo dira.

Ondorioz, eta aipatu artikulua 3. apartatuaren arabera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeari ekiten zaio, kapituluka.

Udalaren aurrekontuaren laburpena

DIRU-SARRERAK:

1. kapitulua.–Zuzeneko zergak: 1.037.925,00 euro.
2. kapitulua.–Zeharkako zergak: 65.000,00 euro.
3. kapitulua.–Tasak, prezio publikoak eta bertzelako diru-sarrerak: 453.732,80 euro.
4. kapitulua.–Transferentzia arruntak: 1.220.179,06 euro.
5. kapitulua.–Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak: 204.106,64 euro.
7. kapitulua.–Kapital transferentziak: 599.283,69 euro.

Diru-sarrerak, Guztira: 3.580.227,19 euro.

GASTUAK:

1. kapitulua.–Langileria gastuak: 825.504,20 euro.
2. kapitulua.–Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 1.214.656,70 euro.
3. kapitulua.–Finantza-gastuak: 16.000,00 euro.
4. kapitulua.–Transferentzia arruntak: 338.188,41 euro.
6. kapitulua.–Inbertsio errealak: 979.572,88 euro.
9. kapitulua.–Finantza-pasiboak: 206.305,00 euro.

Gastuak, guztira: 3.580.227,19 euro.